

Ebazpena: R166/2022

Espedientea: 13/2013

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea nork duen eskumena VSSLk KRG jaunari 2010. urtean eta 2011ko aurreneko bi hiruhilekoetan lan pertsonalagatik egindako atxikipenak ordainarazteko. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 13/2013 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- VSSL sozietate bat da, egoitza soziala eta fiskala Madrilén dituen eta 2010. eta 2011. urteetan bertan zituena lantoki bakarra eta langileen Gizarte Segurantzako kotizazio-kontu bakarra.

2.- VSSLk KRG jauna kontratatu zuen 2010etik aurrerako ondorioekin, eta, lan hori zela-eta, langile hori Gipuzkoara joan zen.

Bi lan-kontratu aurkeztu dira, zerbitzuak emateko lekuari buruzko klausula desberdinak dituztenak: baten arabera, Madrilgo lantokian eman behar ditu zerbitzuak, eta agian joan-etorriak egin beharko ditu; bestean, telelanaren bidez eman behar ditu zerbitzuak, Gipuzkoatik.

3.- 2010eko lehen bi hilabeteetan, PFEZari dagozkion lan-atxikipenak ZAEARI ordaindu zitzaizkion, eta 2010eko gainerako hilabeteetan eta 2011ko lehen bi hiruhilekoetan ere, ZAEARI ordaindu zitzaion EEEZ (langileak zerga hori ordaintzeko aukera baliatu baitzuen).

4.- 2012tik aurrera, VSSLk lantoki bat ezarri zuen Gipuzkoan, hartara atxiki zuen aipatutako langilea, eta atxikipenak GFARI ordaindu zizkion.

5.- 2013ko martxoaren 19n, eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua egin zion GFAK ZAEARI, baina ZAEAK eskumena zuela berretsi zuen 2013ko apirilaren 19an.

6.- 2013ko maiatzaren 21ean, GFAK eskumen-gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da gatazka hori.

7.- 2022ko abenduaren 14an, GFAK prozeduran atzera egin zuen.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Atzera egitea

Interesdunik ez da aurkeztu eta, bereziki, zergapekoa bera ere ez da aurkeztu, eta GFAk atzera egin eta onartu egin du mugitutako langile ez-egoiliarren 2010eko ekitaldiko eta 2011ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako lan-atxikipenen zerga, telelanaren kasuan, bildu eta kobratzeko eskumena ZAEAk duela. Horren eraginez, bertan behera geratzen da bi administrazioen arteko gatazka eta horrek eragiten du Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean bideratzen ari den prozeduraren xedea desagertzea eta, ondorioz, artxibatu behar izatea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, prozeduraren xedea desagertu delako. GFAk atzera egin du mugitutako langile ez-egoiliarren 2010eko ekitaldiko eta 2011ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako lan-atxikipenen zerga, telelanaren kasuan, bildu eta

kobratzeko eskumenari dagokionez, eta horrek eragin du prozeduraren xedea desagertzea.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta VSSLri jakinaraztea.